

Errenteria

HERRI BIZIA 

**ERESBIL,
GURE MUSIKAREN
ERDIGUNERA BIDAIA**
*Eresbil, viaje
al centro de
nuestra música*

ZU! bulegoa

3. ORR. >>

HerriBizia

8. ORR. >>

Argazkiak

10. ORR. >>

Eresbil

12. ORR. >>

Errenteria
Bizia

15. ORR. >>



HERRITARREN ARRETA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA


ATENCIÓN CIUDADANA Y SOCIEDAD DE LA INFORMACIÓN



2017 URTEAN ERRETERIAKO UDALAK ARTATURIKO

HERRITARRAK

PERSONAS ATENDIDAS EN EL AÑO 2017 POR EL AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA



80.269
Telefonoz artatuak
Atendidas telefónicamente

87.798
Bulegoetan artatuak
Atendidas presencialmente

Gardentasuna - Transparencia

gardentasuna.errenteria.eus



43

2017 urtean ikusgai jarri diren udal jarduerari lotutako dokumentuak.
Documentos publicados en 2017 ligados a la actividad municipal.



1.404


Atarian egindako informazio bilaketa saioak.
Sesiones de búsqueda de información realizadas en el portal.



42

Gardentasuna neurtzeko ITA sisteman Erreterriako Udalak betetzen dituen adierazleak.
Indicadores que el Ayuntamiento de Errenteria cumple en el sistema de medición de transparencia ITA.

2017 Visitas a herribizia.errenteria.eus eta errenteria.eus-eko bisitak



— errenteria.eus udalaren webgunea
— errenteria.herribizia.eus, udal komunikabidea

* Herri biziaren 2017ko urtarrileko datuak ez daude eskuragarri.
Los datos de enero de 2017 de Herri Bizia no están disponibles.



ZU!, el Ayuntamiento a tu servicio

ZU!, Udala zure beharretara

ZU! Zure Udala arreta zerbitzuaren atea otsailean ireki ditu Errenteriako Udalak. Bulego berriak tramite gehienak bisita bakarrean konpontzea ahalbidetuko du azken urteetan egindako barne antolaketa lanari esker. Horrez gain, teknologia berriak eta, batez ere, herritarra Udalaren jardueraren erdigunean jatzea dira zerbitzu berriaren ezaugarriak.

Quien haya pasado por delante del Ayuntamiento estas últimas semanas, se habrá fijado en que la planta baja está transformada. Es más,

es probable que muchos hayan entrado para hacer uso del nuevo servicio de atención ciudadana: Zu! Zure Udala.

No ha sido maquillaje. Detrás de la reordenación de la planta baja,

asoma un proceso de más de dos años. El Ayuntamiento, haciendo suya la idea de «poner a la ciudadanía en el centro de la actividad política y administrativa», ha replanteado la relación entre la institución y las y los errenteriaras, con el claro objetivo de favorecer a estos últimos.

En los últimos años, con la mejora tecnológica, se han introducido varias novedades para mejorar la relación entre las dos partes. Pero ninguna ha sido de gran calado. Hace un par de años, los responsa-



bles municipales se realizaron dos preguntas. Por un lado, se cuestionaron si el Ayuntamiento funcionaba bien. A pesar de que la respuesta fue que sí, que funcionaba bien, también se detectaron ámbitos de mejora. Así pues, se pusieron manos a la obra.

En septiembre del 2015 inventariaron el total de trámites o procedimientos que tiene el Ayuntamiento. Entonces contabilizaron 223; hoy en día es alguno más. Censo, subvenciones, pago de multas, servicios sociales... Había un problema, y es que todos esos procedimientos no estaban catalogados en un solo documento. Los aglutinaron, y empezaron a revisar, uno a uno, si se podían simplificar esos procedimientos. Con los que no se podía, intentaron racionalizarlos, para que se encuadraran dentro de una misma lógica en todo el Ayuntamiento.

Una vez empezado a revisar, los responsables del Ayuntamiento se juntaron con los trabajadores de

todos los departamentos, con tres objetivos: el primero, hablar con ellos; el segundo, entender por qué cada trámite se hacía del modo que se hacía; y, por último, analizar entre todos las mejoras que se podían realizar.

Tres ámbitos

Con todo, decidieron mejorar tres ámbitos. Por un lado, invertir en tecnología, por ejemplo, dentro de poco se pondrá en marcha el registro digital. Así, el usuario o la usuaria de ZU! podrá llevar documentos en papel, pero será el trámite digital el que viaje por el ayuntamiento, con el ahorro que supone en tiempo y espacio. Se está trabajando en una futura trazabilidad de los trámites, son el objetivo de la transparencia en mente.

Por otra parte, además de ese tipo de información también se podrá recibir información sobre eventos culturales, sociales deportivos y similares que se lleven a cabo en la villa. Para ello han creado una base de datos que centralizará estas y otras informaciones y que servirá para alimentar los medios de comunicación del Ayuntamiento

Otro ámbito en el que se ha mejorado la atención es la racionalización de los trámites. Así, ZU! Zure Udala funciona como una ventanilla única, es decir, se pueden realizar todos los trámites en el mismo lugar, para la gran mayoría de los procedimientos; el objetivo es que las personas no tengan que dar muchas vueltas.

Más rápido a primera hora

Situada en los bajos del ayuntamiento, la oficina de ZU! Zure Udala se abre los lunes, miércoles y viernes de **07:30 a 15:00**. Los martes y jueves el horario de apertura es el mismo, pero se abre, ininterrumpidamente, hasta las **20:00**. Una administración tiene que contemplar la posibilidad de ofrecer sus servicios sin que nadie tenga que pedir fiesta o permiso en el trabajo. A pesar de esto, por la apertura del servicio por las tardes cuenta con menos usuarios. Los casi dos meses de funcionamiento del servicio indican que el momento en el que se atiende más rápido es de **7:30 a 9:30** de la mañana, y es por lo tanto cuando menos se espera a comenzar los trámites.

El tercer y último ámbito donde han intervenido es en el espacio físico. La oficina de atención es amplia, clara y diáfana. Antes se trabajaba con un mostrador, y ahora se ha reorganizado todo el espacio de la planta baja de la casa consistorial para atender a la ciudadanía. Hay asientos, para cuando toque esperar. Al ser ventanilla única —repartida en ocho mesas—, la planta baja del Ayunta-

Herritarra politika ministratiboaren erdigunean jartzea izan da Udalaren asmoa. Hortik abiatuta eraiki dute bien arteko harremana

miento ya no es solo para registrar documentación o empezar trámites y solicitudes, sino que habrá lugar para otros procedimientos. Por esa razón, quienes hagan uso del servicio disponen de sillas, por si esos trámites son largos. También de biombos, para guardar su intimidad.

A pesar de que las obras de la planta baja sean recientes —y las más

**ZU!
herritarren
arreta
zerbitzu
berriarekin,
herritarrek
tramiteak
azkarrago
eta erosoago
egingo
dituzte**

vistas desde la calle—, los cambios han tenido un efecto dominó: en el último año se han reubicado, con sus respectivas obras, hasta ocho departamentos, para poder habilitar ese espacio tan amplio en la planta baja.

A pesar de lo novedoso que es ZU!, el Ayuntamiento de Errente-



USUARIOS SATISFECHOS

Ya son centenares los y las errenteriarra que han conocido ZU!. Así, el matrimonio formado por Marisa Ruiz y Jose Antonio Ruiz ya han pasado más de una vez por la nueva oficina de atención. Aseguran que no tiene nada que ver con lo que había antes. «Está muy bien, es una maravilla. Va con mucha rapidez, es muy ágil y está digitalizado», dicen.

Antonio Alonso comenta que hace tiempo que no pisa las dependencias municipales, pero ha notado la diferencia. «Es mucho más rápido», destaca. Eso sí, lamenta que una señora mayor con que ha coincidido anduviera un poco perdida.

Koldo Huidobro es donostiarra. Es la primera vez que acude, y ha tenido una buena impresión: «Ha sido muy rápido y muy eficiente».

ria planea seguir evolucionando. Lo explican con un ejemplo práctico (que los padres y las madres agradecerán). Hasta ahora, para apuntarse en las colonias de verano, los padres y madres iban al departamento de Juventud, recogían el formulario; iban al banco, pagaban y cogían el resguardo; con eso y el formulario relleno, volvían

al Departamento de Juventud; y además luego se les decía si se les admitía o no. Este año, por primera vez se ha podido realizar todo el trámite a través de internet, desde casa. Un bonito ejemplo de lo que entiende este Ayuntamiento por poner a la ciudadanía en el centro de la actividad política y administrativa.



ERRENTERIAKO UDALAK PROIEKTU ZEHATZETARAKO ESKURATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK 2011-2015

SUBVENCIONES CONSEGUIDAS PARA PROYECTOS CONCRETOS POR EL
AYUNTAMIENTO DE ERRENTERIA 2011-2015

20.725.712, 73 €

6

9.380.420,80 €

*Eusko Jaurlaritza
Gobierno Vasco*

*Larrialdietako Gizarte Laguntza
Alokairua eta energia-txirotasuna*

*Ayudas Emergencia Social:
alquiler y pobreza energética*

*Enplegu planak
Planes de Empleo*

Ikastetxeen berritzea

*Koldo Mitxelena, Gamon eta Bizarain
(Leihoak eta fatxadan berritzea,
eta zabaltzea)*

Rehabilitación de colegios

*Koldo Mitxelena, Gamon y Bizarain
(renovación de ventanas y fachadas,
ampliación)*

*Igogailuak: Agustinak eta Alaberga
Ascensores: Agustinas y Alaberga*

1.013.888,74 €

*Espainiako Gobernua
Gobierno de España*

Aizkorri: igogailuen parte bat

Aizkorri: parte de los ascensores

Resurrección M^a Azkue:

konponketa eta bidegorria

Resurrección M^a Azkue:

reurbanización y carril bici

Zamarreño parkea:

haur parkearen berritzea

Parque Zamarreño:

renovación parque infantil

10.145.373,89 €

*Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa*

Etxez etxeko laguntza

Ayuda domiciliaria

Kaputxinoetako igerilekua

Piscina de Capuchinos

Eskola kirola

Eraldaketa feministarako eskola

Eraldaketa feministarako eskola

*Escuela para la transformación
feminista*

167.822,00 €

Beste erakunde batzuk

Otras entidades

Ekogunea

18.207,30 €

Europako Batasuna

Unión Europea

Energia eraginkortasuna

Eficiencia energética

Errenteriako Udalaren aurrekontuan diru sarrera nagusiak bertako zergak eta tasak zein Gipuzkoako Foru Aldundiaren funtsak dira; Udalaren proiektu zehatzetarako beste erakundeetan lortutako ekarpenak dira orriotan jasotakoak.



ERRETERIAKO UDALAK PROIEKTU ZEHATZETARAKO ESKURATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK 2016-2017

SUBVENCIONES CONSEGUIDAS PARA PROYECTOS CONCRETOS POR EL
AYUNTAMIENTO DE ERRETERIA 2016-2017


7.232.630,01 €

4.445.307,81 €
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Etxez etxeko laguntza
Ayuda domiciliaria
ZU! arreta zerbitzua
ZU! Servicio de atención
Atlantikaldia
Lekuona
Beraungo estadioa

2.759.314,90 €
Eusko Jaurlaritza
Gobierno Vasco

Larrialdietako Gizarte Laguntza
Ayudas Emergencia Social
Enplegu planak
Planes de Empleo
Beraungo kultur etxea
Casa de cultura de Beraun
Fanderiako errota
Molino de Fanderia
Iggailuak:
Urdaburu/Galtzaraborda eta Beraun
Ascensores:
Urdaburu/Galtzaraborda y Beraun



9.800,00 €
Beste erakunde batzuk
Otras entidades
Atlantikaldia

18.207,30 €
Europako Batasuna
Unión Europea
Energia eraginkortasuna
Eficiencia energética

Los ingresos principales del presupuesto del Ayuntamiento de Erreterria suelen ser las tasas e impuestos locales y la aportación de los fondos de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Los ingresos recogidos en estas páginas son aportaciones conseguidas en diversas instituciones para proyectos municipales.



*informate del día a día en
herriko egunerokotasunaren
berri izateko*



HERRI BIZIA
herribizia.errenteria.eus



San Marko, zabalik

*Ondarea, natura eta leiho handi
bat, hurbil eta denen eskura*



8

Azalean, déjate aconsejar

*Asesoramiento sexual, para
un pueblo con buena salud*



« Mantenu lanak

*Auzoetan urrats txikiak,
herri atsegina
baten bidean*



Revitalizar, para renacer

Se está haciendo un inventario de los locales en los bajos del Casco Histórico



%62,2 de reciclaje, y subiendo

Los y las erreterriarras están reciclando bien



Gelditu dira, mundua mugiarazteko

*Martxoaren 8a,
historikoa herrian*





Inauteriak 2018



//udal taldeen mezuak//

TRABAJEMOS JUNTOS POR ERRETERIA

[PSE-EE] El próximo año serán las elecciones municipales, eso conlleva la realización de un programa electoral serio, responsable y realizable. Desde el PSE-EE queremos hacerlo junto con los vecin@s, y así del trabajo conjunto conseguir realizar un proyecto de ciudad más atractiva, social, moderna, solidaria e igualitaria, priorizando en las personas y en la mejora de su calidad de vida.

Los desemplead@s, l@s jóvenes, l@s mayores, las mujeres, la mejora de empleo, de limpieza urbana, de aparcamiento, de tráfico, de la inseguridad, de accesibilidad, de vivienda, serán los ejes principales de nuestro programa.

Hacednos llegar vuestras propuestas e ideas a la dirección de email pserrenteria@gmail.com para así elaborar un proyecto acorde con las necesidades reales que necesita nuestra Villa.

GU KATALUNIAREKIN!

[EAJ-PNV] Euskaldu-non eta kataluniarren bideak lotuta daude, Estatu bera daukagu aurrez aurre. Katalunian gatazka ezingo da ebazpen judicial edo espetxeratzeen bidez konpondu, elkarrizketaren bidez baizik. Gure borroka ere bada bide hori bide bide bakarra dela ikusaraztea. Garai zailtan ikusten dira benetako adiskidetasunak eta Agirre Company-sekin egon zen bezala, orain ere gu Jordi Turullekin, Oriol Junquerarekin, Raül Romevarekin, Antonio Comínekín, Josep Rullekin, Dolors Bassarekin, Clara Ponsatírekín, Joaquim Fornekín, Jordi Sanchezekín, Jordi Cuixartekín, Carme Forcadellekín, Marta Rovirarekin, Lluís Corominasekin, Lluís Guinórekín, Anna Isabel Simórekín, Ramona Barrufetekín, Joan Josep Nuetekín, Meritxell Borrásékín, Lluís Puigekín, Carles Mundórekín, Santiago Vilarekin, Meritxell Serretékín, Mireia Boyarekin, Anna Gabrielekín, Carles Puigdemontekín. GU KATALUNIAREKIN!

LA IMPORTANCIA DE LO COLECTIVO PARA HACER UNA ERRETERIA DE TODXS

[IrabaziZ] La AVV 'Laguntasuna' de Gabierrota ha cumplido 50 años. Felicitarles, sin ellas Gabierrota sería un barrio peor. Mirando a Errenteria podemos decir que sin el trabajo de los colectivos sociales Errenteria sería un pueblo peor.

Hoy se lleva 'delegar' y se minusvalora lo 'colectivo' pero ese camino poco hubiesemos avanzado en nuestro municipio. El Ayuntamiento como órgano de representación juega un papel muy importante en el día a día de nuestro municipio. Pero no podemos creer que con votar cada 4 años se acaba nuestro papel en impulsar nuestro pueblo.

Errenteria necesita un movimiento asociativo fuerte. Que impulse actuaciones y tome decisiones en aquello que le incumbe y que incluso abra vías para buscar salidas a temas enquistados... Esa la importancia de lo colectivo para hacer una Errenteria de todxs y para todxs.

ZU! ZERBITZUA, UDALA ZURE BEHARRETARA

[EH Bildu] Udalak arreta emateko zuen modua erabat irauli dugu arreta zerbitzu berri bat inplantatuz. Hainbat pausu eman ditugu alor ezberdinetan herritarra jartzeko jardun administratibo eta politikoaren erdigunean. Bide horretan beste pausu bat da ZU! Zure Udala, herritarra artatzeko zerbitzu berria.

Luzea izan da proiektua abian jartzeko egingandako bidea: inbertsio teknologikoa, ZU! zerbitzuari dagokion sistema ezartzeko; administrazioaren prozeduren sinplifikazioa eta arrazionalizazioa, banan-banan Udalak dituen tramite guztiak berrikusiz; eta udaletxearen espazioa bera moldatzea. 2 urteko txingurri lana, herritarra egokiago atenditua izateko. Hau guztia hasiera besterik ez da, esan bezala, pausu berriak ematen jarraituko baitugu geroz eta erosoago bihurtzeko administrazioa herritarrarentzat.



Euskal musikaren altxortegia

El archivo de la música vasca que dirige Jon Bagues es un pequeño tesoro que pasa inadvertido para las y los errenteriaras. Pero su director recuerda que es un agente más de la vida cultural de la villa, a pesar de que también trabaja internacionalmente y con un nivel de profesionalización muy alto. En sus fondos se encuentran más de 200.000 documentos que describen la música vasca en todas sus vertientes. Surgido a la sombra de Musikaste mira al futuro actualizándose cada día.

Eresbil, Euskal Musikaren Artxibategi Nagusia, Errenterian sortu zen, eta bertan jarraitzen du gaur egun ere. Niessen kulturgunearen hegala batean du egoitza nagusia, eta milaka artxibo gordetzen dituzte bertan. Baina hasi, armairu txiki batekin abiatu zen Andra Mari Abesbatzaren zuzendari Jose Luis Ansorenaren eskutik.

Jon Bagues da Eresbilen egungo zuzendaria, Ansorenaren lekuko hartuta. Gogorarazi duenez, Ansorenak lehenengo Musikaste antolatu zuen 1973an, eta orduko arrakasta zela eta, beste ekitaldi bat egitera animatu zuten. Orduan konturatu zen euskal musikagileen lanak jasotzen zituen artxiborik ez zegoela. Ideia simple horrekin hasi

zen biltzen mende guztietako euskal konpositoreen lanak.

Lehen egoitza Kaputxinoen elizaren beheko solairuan izan zuen, Andra Mari entseatzan zuen lokalean. Armairu bakarrarekin hasi ziren, eta hura txiki geratzean, ondoko frontoi batera lekualdatu zuten. Hura izan zen artxibategiaren etxea, 2002an egungo eraikineri mugitu ziren arte. «Desberdintasuna izugarri handia izan da. Hura lokal bat zen, eta hemen lau pisu ditugu. Gainera, horretarako prestatuta dago: depositoak alde batetik; lantaldearen eremua bestetik; eta gero, bezero eta ikertzaileentzako beste leku bat. Askoz hobea da», esan du Baguesek.



El espacio de que dispone Eresbil permite trabajar en múltiples ámbitos. Por ejemplo, posee 180 fondos completos de compositores fallecidos

Lan motak

Espazioaren handitze horrek lanean ere izan zuen eragina. Gaur egun, esparru askotan egiten dute lan, musikarekin lotuta, betiere. Horrela, partiturak bakarrik jasotzeaz gain, hildako konpositoreen funts osoak jasotzen dituzte. 180 bat dituzte gaur egun.

«Beste alde batetik», jarraitu du Baguesek, «musikari buruzko liburutegi orokorra egiten hasi ginen. Horrez gain, 1986tik, Euskal Herrian egiten diren disko guztiak sistematikoki jasotzen ditugu». Edozein musika mota izan daitekeela dela zehaztu du: hasi musika klasikoa deitzen zaionetik, gazteen musikaraino, herri musikatik pasatuta. «Gure fonoteka oso handia da. Esango nuke gure artxiboaren erdia entzunezko dokumentuak direla, eta beste erdia papera».

Izan ere, dokumentu kopuru handia daukate: 100.000 audio dokumentu dituzte, eta paperezko beste hainbeste. Bigarrenen kasuan, gehienak autore klasikoak dira, herri musikakoak entzutekoetan.

Horrez gain, dokumentazio laneko beste 25.000 fitxa dituzte. Artxiboaren zuzendariak azaldu du zertan

datzan horrek: «Egunero egunkariak begiratu eta mozketak egiten ditugu, talde batek diskoa aurkeztu baldin badu edo. Interpretak, musikagileak... horrekin dossierak egiten ditugu. Guretzako oso interesgarriak dira, talde horiek egiten duten musika sailkatzeko orduan, asko laguntzen digute».

Hori guztia kudeatzeko 11 lagunek lantaldea dute, bi sail handitan banatuta. Alde batetik, administrazioa: kudeaketa, erosketak... Bestetik, lan teknikoa. Bost dokumentalista daukate, eta hiru arlotan egin dute lan:

idatzizko arloa; musika partiturak; eta ikus-entzunezko dokumentazioa. Azken horretan, teknikari propioa bat dute, edukien trasbasea egiteko eta digitalizatzeko.

Musikaren euskal artxibo nazionala da Eresbil. Eusko Jaurlaritzarekin bi hitzarmen dituzte. Lehena, artxiboak kudeatzeko. Bigarrena, Euskal Autonomia Erkidegoko lege gordailua zaintzearena eta katalogatzearena. «Adibidez, euskal liburutegi sarean ikusten den euskal rockaren fitxategi guztiak guk egiten ditugu, eduki guztiak hustutzen

MUSIKASTE, DIBULGATZEKO

Musikaste Euskal Musikaren Astea izan zen Eresbil sortzeko txinparta. Urtero egiten dute Andra Mari Abesbatzak antolatuta, eta mende berriarekin batera, Eresbil ere sartu zen antolakuntzan.

Ekitaldi bakoitzerako gaiak aukeratzekoan, normalean, mendeurrenak hartu eta horretan oinarritzen dira programa osatzeko. Aurtan, eta emakume emakume konpositoreak izango dira ardatza maiatzaren 18tik 26ra antolatuko den musika astean.

Bada gaia hautatzeko arrazoirik: emakume konpositoreei bultzada emateaz gain, Maria Luisa Ozaitaren funtsa jaso zuten Eresbilen. Bagues: «Barakaldoarra zen, baina Madrilen bizi, eta joan den urtean hil zen. Bizi zen artean, bere funtsa hona ekartzea erabaki zuen, eta horregatik omendu nahi dugu. Ozaita, gainera, Asociación Mujeres en la Música sortzaile eta lehendakaria izan zen. Omentzea derrigorrezkoa eta bidezkoa iruditzen zitzaigun».



ditugu hara. Gure lana espezializatu da. Normalean, liburuzainek ez dute denborarik disko baten deskribapen oso zehatza egiteko».

Musikari lotuta

Eresbileko zuzendariaren ustez, Errenteriak lotura handia du musikarekin. Artxibategiaz gain, herrian dago Euskal Herriko Txistularien Elkartearen egoitza, eta Euskal Herriko Abesbatzen Elkartearen udalerrian bertan sortu zen.


Sona handia dute herritik kanpo. «Lotura handia daukagu Euskal Herriko beste artxibo eta liburutegiekin. Baina ez hori bakarrik: estatuko Madrilgo eta Kataluniako

liburutegi nazionalekin, Galiziako liburutegiarekin, Andaluziako dokumentazio zentroarekin... Nazioarteko erakundeekin ere badaukagu harremana. Beraz, kanpoan Errenteriaren izena saltzen dugu, esan du.

Kanpoan ezaguna izanagatik, Baguesek aitortu du herrian bertan ez dela hain ezaguna. Bitxikeria batekin azaldu du, umoretsu: «Kanpoko bezeroak etortzen direnean, errenteriar bati galdetzen diote ea non dagoen Eresbil, eta askotan ez dakite erantzuten... Egia da, baita ere, arkitektoak oso arkitekto direla, eta ez ziguten utzi eraikinaren kanpoaldean gure izena jartzen. Atean badago silueta, baina ez da oso erraz ikusten...».

Hala ere, normala dela uste du. Izan ere, Eresbil ez da egunero erabiltzeko zerbitzu bat, dena bat izan daitekeen bezala. «Herrian bizi direnei ere ematen diegu zerbitzua, baina mundu guztia erantzutzea egiten dugu lan. Horrek ez du esan nahi herriarekin gehiago ezagutarazi behar ez denik. Jendeak jakin behar du hemen gaudela, existitzen garela, eta harro egotea ondare aldetik garrantzitsua den erakunde bat badagoela jakinda». Musikarekin lotutako edozein zerbitzurako ateak zabalik dituzte: «Adibidez, inauterietako musikaren kopia asko egin ditugu herriko taldeentzat. Horretarako ere bagaude; herri eragile bat gehiago gara».

Un equipo completo de 11 personas se encarga de gestionar todo el volumen de trabajo que supone Eresbil





Argazki zaharra

Gamon Zumardia da Erreterriako tokirik ezagunenetakoa. Herritarren bilgune, herriko historian iltzatutan gelditu diren pasarte askoren lekuko izan da. Baina beti ez da izan gaur egun ezagutzen den bezalakoa, aldaketa asko izan ditu urteen joan-etorrian. Ondoko irudia 1915ekoa da, Gure Gipuzkoa argazki zaharren artxibategian data duen herriko zaharrena, Indalecio Oiangurenen funtsekoa zehazki. Ikus daiteke, egungo Nafarroa etorbideaz gain, errepide batek Biteri kale aldera jotzen zuela, bien zorua lurrezkoa zela. Antza, orduan auto askorik ez zegoen, eta Zumardiaren izkina horretan dagoen erregaia banatzeko makina —bakarra— bakarti agertzen da. Juan Ignacio Gamonen omenez (Erreterria, 1733-1814) darama izen hori alamedak; herriaren historialari izan zen.

Ba al zenekien...

Erreterriak **40.015** biztanle dituela?

Erreterria tiene **40.015** habitantes (fuente EUSTAT, a diciembre de 2017). **20.471** son mujeres y **19.544** hombres. Dado que el municipio tiene una extensión de **3.194** hectáreas, la densidad de población es de **1.252,2** habitantes por kilómetro cuadrado. Es significativo que el **23%** de los y las erreterriarras tiene más de 65 años.



Txoko bat

La Basílica de Santa María Magdalena (mal conocida como La ermita), según algunas hipótesis, se construyó entre los siglos X y XI. Es uno de los edificios más antiguos de la villa, y su primera misión fue la de albergar a enfermos de lepra (María Magdalena murió por esa enfermedad); por eso está fuera del casco medieval. Fue la primera parroquia de Orereta —así se llamaba entonces—, y por eso las fiestas de la villa son en honor a ella. Según lo documentado, en 1476 se quemó el edificio, y en 1514 era un hospicio infantil. En el siglo XVIII se deterioró, y en el siglo XIX, una vez reconstruida, albergó una fábrica de campanas. Las últimas obras importantes fueron en 2013. Este último lustro, un grupo de vecinos está dando lustre al edificio, y organizan un sinfín de actividades culturales.

Udal kirol instalazioak

INSTALACIONES DEPORTIVAS MUNICIPALES



GALTZARABORDA UDAL KIROLDEGIA

Polideportivo Municipal Galtzaraborda

Aiako Harri z/g - 943-44 96 90

Astelehenetik ostiralera: <i>De lunes a viernes:</i>	8:00-22:00 8:00-22:00
Larunbatak: <i>Sábados:</i>	9:00-21:30 9:00-21:30
Igande eta jai egunak: <i>Domingos y festivos:</i>	9:00-14:00 9:00-14:00
Itxita:	maiatzaren 1a; uztailaren 23a eta 31 abuztuaren 1etik 15era; abenduaren 25a
Cerrado:	1 de mayo; 23 y 31 de julio 1-15 de agosto; 25 de diciembre

FANDERIA UDAL IGERILEKUA

Piscina Municipal Fanderia

Touring etorbidea 4 - 943-34 44 23

Astelehenetik ostiralera, <i>De lunes a viernes:</i>	8:00-22:00 8:00-22:00
Larunbatak: <i>Sábados:</i>	9:00-21:30 9:00-21:30
Igande eta jai egunak: <i>Domingos y festivos;</i>	9:00-14:00 9:00-14:00
Itxita:	maiatzaren 1a; uztailaren 23a irailaren 10etik 26ra; abenduaren 25a
Cerrado:	1 de mayo; 23 de julio del 10 a 23 de septiembre; 25 de diciembre

Aldizkari honen hurrengo zenbakiak herritik kanpo bizi den errenteriarren batek jasotzea nahi baduzu bete ezazu beheko formularioa. Si quieres que alguna o algún errenteriarra que viva fuera reciba los siguientes números de la revista háznos llegar sus datos rellenando el formulario:

Izena Nombre _____

Helbide osoa Dirección completa _____



HERRI BIZIA
errenteriarren biziak



Errenterriako Udala

Entrega ezazu kupoia udaletxean edo jarri gurekin harremanetan herribizia@errenteria.eus edo 943-44 96 00 telefonoan.
Entrega este cupón en el ayuntamiento o ponte en contacto con nosotros a través de herribizia@errenteria.eus o el teléfono 943-44 96 00.